





EUSKALTZA
AZKUE BIBLIOTEKA

Eskolak ezin du oro egin!
Ez da eskolatzea aski.
Gizona beti hazten
ari baita, sozietateak
zor diozka bakotxari
gisa guzitako
haz eta molde bideak,
4 urtetarik-eta
80-taraino gutienik.
Horra biharko "edukazionea".

Unesco

Herria-k 72 - X - 28 an

Halatan, bada, artikulo bakarra da sakonketa mailan: "Hel-
duen hezketa" delakoa. Hilabete oro-edo prolema nagusi bati bu-
ruz Xabierrek idazten duen horietakoa. Pisuko artikuloa izan ohi
dela ongi daki irakurleak bide berrien bilaketan urratsik eman ahal
izateko. Eta bakarra ere, aski polita bera, Eibartik esperientzien
sailerako idatzi dutena: "Ttipien gurasoekin solasean", Kontxi eta
Libek izenpetzen dutelarik.

%%%%%%%%%

Lehengo zenbakian agindu bezala, Portugaleteko informazi-
oa sartu dugu azkenik. Emanik dugu honi buruz geure iritzia albi-
risteetan. Agian, galdu bere gaurkotasuna, zeren-eta handiagoak
ahazten bait du beti ere ttikiagoa. Gainera, hori da preseski infor-
mazioaz bere denboran ez hornitzearen ondorioa.

oooooooo



PERTSONA HELDUEN HEZKETARI BURUZ

Hego-Ameriketan pertsona helduak alfabetatzeko egin diren saioak mota askotakoak izan dira eta ondoren ezberdinak eman dituzte. ALBERTO SILVA-k berriki idatzi duen liburuan saio hauen ikuspegi kritikoa eman nahi izan dauku. " L'ècole hors de l'ècole " edit. du CERF 1972.

Liburu honen azkeneko partean erabiltzen diren bi hez-moldeen ikuspegi kritikoa ematen dauku. Oraingoan lehen hez-moldearen ikuspegia ematen saiatuko gara bere abiaburu eta helburu agertuz, eta bere alderdi hauek salatuz. Gogoan har dezagun hego-ameriketako egoera oso berezia dela eta atzerapenaren eta zarpaketaren ondorenetik negargarrienetako bat analfabetismoa dela.

Baina harat ere heldu dira teknikoen idorokundeak eta UNESCO-ren eraginez pertsona helduen alfabetatze bizkor bat egiteko bere planak eginak dituzte.

Hezketak oso itxaropen bizia sortu zuenik ezin da uka. Emaitzak ordea ez dira uste bezain onak izan eta haserako berotasuna maldutz doha.

Esan dezagun lehenik, eta hastapenetik beretik eskola zaharrak erabiltzen zituen hezketaren moldeak desegokitzat ematen zirela pertsona helduen alfabetatzea egiterakoan. Eredu zaharrak alde batera utzirik berri batzuk saiatu behar ziren hezketa jatorrago bat eman nahi bazen.

Baina egun, jende askok dionez, bide berri hauetan barrena ez da askoz areago jo. Pertsona helduen mailan hezketa molde bereziak erabiltzeko ideia jaso eta apoiatu egin zuen erakundea, UNESCO delakoa izan zen. Oraindik ez da saio oso luzerik egin baina zer emaitza atera ahal den eta zer eragozpen aurkitzen den ikusteko bildu diren datoak oinarritzat hartuz baloratze bat egin daiteke. Esan dezagun baita ere zenbait nazioetako gobernuak onartu egin dela UNE

del a UNESCO-ren plana eta saioak egin zirezen erraztasunak eman dituela.

1.- Uneskok edatu eta aplikatu nahi izan duen hezketa ren moldea FUNTZIONALA dei dezakegu. Hezketa molde honen bidez erdietsi nahi den helbururik inportantena luzarora begira, gizartearen beraren eraketak arras aldatzea da. Hau urrutiko helburutzat emanik ere, hurbi lagoko helburu ekonomiaren suspertze eta produkzioaren areagotzea jotzen da. UNESCO-k dionez ezinbesteko da produkzioaren alorretik abiatzea baldin lan efektiborik egin nahi bada. Hots, ez da eraketen nahiz egituren eremuan egiazko aldakuntzarik egin ahal izanen, produkzioaren mailak gorakada latz bat egin ez dezan arte. Eta gorakada honen berezko fruitua eraketen aldakuntza lizateke. Beraz, produkzioa gehi dezan hezketa ren moldea ona da eta hau erdiets dadinean beste nazioetan heldu diren bezala, etorriko dira herri hauk ere kulturaren mailan erakunde kunde modernoak osatzera.

2.- HEZKETA PROFESIONAL honek errealista izan behar raren aitzekiz ez ote du TEKNOKRAZIA alderat eramane n?

UNESCO-k eragina dugu hez molde hau eta ez dugu ahantzi behar Europako mentalitate teknikoaz kutsaturik dagoela. Ho Honengatik ez da harritzekoa UNESCO-k programa honi ezarri di on helburua errentabilitatea izatea. Orain arte erabili diren hez moldeak idealistatzat salatuz egoera aldatzeko oinarri sendoak jarri behar direla dio. Alfabetatzea eta hez molde profesionala elkar uztartzen direla, beste zenbait mailatan ez jakin diren gizonek ere produkzioaren alorrean esku har lezakete eta hatuko lukete. Bere buruaz zalantzarik egiten ez duen hez molde teknokratiko de lakoak baditu bere dogmak eta hauk aztertzea komeni da.

a/ Hezketa oso da garrantzi handiko herri baten desa-

roilorako.

Askorentzat hau barra barra hedatu behar den dogma bat da. Dogma honetaz ez da dudarik egin behar. Gure kasoan delako LE-GE BERRIAK ere dogma honetan nola oinarritzen den ikus ahal izat teko aski da legea aurkezteko garaian eman ziren azalpen ofizia- lak irakurtzea.

Hezketaren moldeak berritzeko bestalde ez gaitezke herria- ren ekonomiaren mailan gora altxa dadin zain egon. Aitzitik, eko- nomiko aurrerapen ororen eragilerik bortitzena, herri batek hezke- tarako dituen erakunde atzerakoien eguneratzea da.



Seguraski ikuspundu hau, eraket- ta guztiz gain-beherako bat du- ten nazio autoritarioetan sortua dugu lehenik. Baina egun herri guztietara hedatua denik ikus- tea erraz da. Herri sozialistek lehenik oso itxaropen bizia izan dute hezketan eta batez eremu honetan egin dituzte planteake- ta serioenak. Gero herri kapi- talistek ere beregana dute espe-

rantza hau eta herri atzeratuak, desarroilo azkar baten ametsarekin batera hezketa iraultzaile baten gutizia kutsatu diete. Egun, herri gehienek bide hau ontzat ez-ezik bakartzat ere emana dute, agin- tedun-mailatan bederen.

Alderdi honetatik gauzak ikus ditzanarentzat, hezketa on ba- ten gakoa langintzarako prestaera egoki bat ematean datza. Kon- kretuki, eta gogoan harturik herri haietan laborantza oso garrantzi- tsu dela, laborariei erakutsi behar zaiena zera da: lehen erabiltzen zituzten tresna zahar eta atzeratu haien ordez teknikak egun eskain- tzen dituen tresna egokiak manaitzen eta ahalik eta fruiturik uga- rien ateratzen. Nekazarien eskolak sortu eta jenderik gehiena hau- etan pasaeraziz teknika hau hedakuntza erdietsi.

Gonbarazio bidez ikus genezake nekazarien eskolak gure

Euskal Herrian betetzen duten eginkizuna zertara zuzendurik dagoen. Hezketa honen balioa, eta beti ere UNESKO-ren ustetan, handia izanen da nekazarien eguneroko bizitzan eragin bortitzik ukan dezan kasoan eta honelako aurrerapenik ikus ez badadi ez du balio handirik ukanen. Beste modu batera hitz egiteko, hezketaren molde hau inbertsio ekonomiko baten gisara ikuspegitzen da eta bere efikazia emaitz konkretoak ikusiz neur daiteke.

b/ Hezketaren molde sozial aldakuntzen mekanismoa da.


Alegia, hezketaren mota berezi honek xuxenean giza eraketan aldakuntza edo iraultza kausatuko du. Ikus dezagun nola: Hezketaren molde honen ustetan gizon oro egoera berdinean aurkitzen da kulturaren aurrez-aurre. Ez da neholako pribilegiorik ez influentziarik onartzen. Eta hastapenean nehork bentajarik ez duenez bakoitzak bere gaitasuna arabera bere balioaren froga agiria emanen du. Hezketak berak esanen baitu nork zertarako balio. Eta esan gabe doha hezketa honen ustetan pertsonak zertarako balio duen hartara jarri behar dela. **BEREZKO SELEKZIO BAT** egingen du. Noski, ez da oraindik inon gizartearen eraketa zuzena erdietsi, pertsonak ez dira gaitasunez mailaturik aurkitzen, baina teknika hauk zehatzki ez dira orain arte inon saiatu eta hezketa zuzenaren eginkizuna hau litzake: pribilegioak bazter utzi eta gizonak metro berdinez neurtzea.

d/ Hezketaren arazoa **EKONOMIKO ARAZO BAT** da batez ere eta lehenik.

Beste edozein eremutan egin daitezken inbertsioak helburu xehe bat dute. Diru konkreto bat ematea eta beti ere produkzioa areagotzen aritzea. **HEZKETAREN** alorrean egiten den inbertsioak beste guztien oinarri eta ardatz izatea du helburu bezala. Eskulana maila guztietan ahalik ongien antolatua eta kualifikatua izan dadin, alfabetatzaileek langile xehei lan arruntetatik has eta teknika berriak erakutsiko dizkiete. Beste modu batera esateko gizona teknikan maila batera iritsi delarik, produkzioa ere ritmo berezi batez ari d

tez ari da goraka. Eta gorakada horrek atzerapenik ukan ez dezan langile berriek gutienez teknika berri horien jabe izan behar dute. Baina hau ez da aski eta gorakada hori azkartuko bada eta azkartu behar denik ez da dudarik egin behar gero eta teknika hobez jantziriko langileek behar dira. Teknika hauez jabetzeko oso gai dena, alfabetatze lanetarako oso egoki da, eta bera izan daiteke bere lankideen alfabetatzaile bikainena. Produkzioaren alorrean eman kor den guztia besterik gabe eredutzat hartzen da.

e/ Alfabetatzen hau emankor den ala ez ikusteko baloratze **KUANTITATIBO BAT** egin behar da. Esana dugunez alfabetatzen on baten ondorenak produkzio on batetan nabaritu behar dute. Honela epe baten ondoren baloratzen bat egitea komeni da.



TZEAK zentzu h

Eta baloratze hau internazional mailan egitea posible denez, planteaketa orokor bat egiten saiatu behar da, guztiekiko balioko duen hezketaren planteaketa egiteko. Hain maiz entzun eta irakurri ohi ditugun produkzioaren gehitzearen **GORAIPATZEAK** zentzu honetan eginak dira.

f/ Herri aberatsen hildotik...

Neurri batera gauzak ekar nahi ditzanak, gonbarazio bide bat ukan nahi dezanak, neurri bat hautatu behar du, kriterioetara jo behar du. Hezketaren norabidea markatzeko, herri aberatsen planteaketak hartu ohi dira eredutzat. Besterik gabe eredu hau bere horretan birlandatu nahi izan dituzte, ereduak tokiz aldatu ere e maitza berdinak ekarriko dituztelakoan.

Duela hamar bat urte herri hauk guztiak oso garrantzi handia ematen diote hezketan arazoari. Herri hauetako gobernuak eginkizun hau guztiz lehen mailakotzat jotzen du eta planteaketa berri

hauen kargu eginen diren talde espezializatuak eratzen ditu. Hezketaren ESPEZIALISTA hauen esku geratzen da azkenik hezketa berriaren linea nagusiak seinalatzea.

Horrela gauzak ikusten direla herri batek zenbat urtetak o atzerapena duen matematikazki kalkulatu da eta atzerapen hau laburtuz johanen dela pentsaturik, urte mordoska bat iragan dadinean besteen mailara heltzeko itxaropena sortzen da. Beste zenbaiten ondoren dena, kausatzat hartuz, herri batzuk azpidesarroiturik egotea, ekonomiko eraketa trakets baten ondorentzat ematen da eta azken hau kulturarik ezaren arrazoinez azaltzen.

Edozein erataria ere atzerapenaren errealitatea gorde ezina gertatzen da nahiz eta zenbait aldiz egiazko zifrak eman ordez beste batzuk ematen diren. Atzerapen hau berdintzeko, atzeraturik diren herri hauk beren hazkuntzaren prozesoa azkartu beharrean aurkitzen dira. Gainerako herri aberatsek ere beren aurrerakada egiten baitute eta gero eta azkarrago gainera.

3.- ERITZI HONEN ikuspegi kritikoa.


Hezketa eta desarroiloa elkar uztartzen saiatzen den tesi honen aurka humanista deitu ohi den tesia azaltzen da. Hauen eritziz hezketa gauza berez oso balio handikoa da, kulturaren sortzaile denez eta ez du ezinbestean ekonomiko desarroiloaren iturri izan behar. Hezketak baditu bere helburu eta bere lanbide bereziak eta bere askatasuna eta neutraltasuna gordetzen saiatu behar du.

Tesi zahar honekin gonbaratuz hezketa FUNTZIONALAK aurrerapen bat suposatzen du dudarik gabe. Alderdi teknikoak eta profesionalak ahantz ezinak dira gure gizartean. Hau alde batera uztea errealitatez kanpo ibiltzea lizateke. Laborariek eta gainerako langileen gorputzek dituzten arazo teknikoak haintzat hartzea gutiz bidezko dela esan behar da.

Halabaina, hezketak eta ekonomiko desarroiloak hain herts-

ki uztarturik dihardutela uste dezanak honoko eragozpen hauei erantzun beharko die :

Gauza frogatua da teknika batzuk erabiltzen ikasteak ez dakarrela berez eta beti produkzioaren areagotzea. Saioa bereziak egin diren herrietan gero eginiko baloratzean hau garbiro ikusi da. Eta gugandik hurbilago diren herri sozialistetan, Errusian esate baterako, ez dute orain arte uste zuten xederik lortu eta ekinaldi baten ondoren Errusiako produkzioak behera egin zuen. Eman dezagun orain arte Hegoameriketara egin dituzten saiok labur samarrak izan direla eta ez dela oraindik erabateko aurkako frogarik eman. Baina hasera batetan gauzak ongi funtzionatu duten herrietan ere gerora okertu egin dira edo haserako abiada ona oso iraupen motzekoa izan da. Halere eta hezketa berak frogatzen dituzten tinkoagorik eskaintzen diren artean arazo honi beste mutur batetik hel genezaioke.



Hezketa-mota honi buruz gogoan esan duguna gogoan dugula ondorio hau atera dezakegu : Hezketa funtzionalaren eragile den UNESCO-k irakaskintza teknikoak, bere horretan, gizarte honen eraketan aldakuntzara daraman bidea bezala seinalatzen daukula. Eta irakaskintza teknikoaren garrantzia ontzat ematen ere bistan da beste ekintza

batzukin uztartu behar dela. Ekintza hauek ezberdinak izanik funtzio ezberdinak beteko dituzte helburu bat eta bera atxikitzeko baina elkarren dependentzian jarri behar dira, hots ekintza desberdin hauen arteko kate mailan lehena dena bigarren jartzea ez litzake bidezko izanen ez eta alderantziz iokatzea. Eta atzerapen ekonomikoa kulturarik ezaren ondorio baina areago egitura zanpataile batzuen ondorio da. Eta atzerapen hau ez zanpaketaren amaitzeaz baizik osoki erdietsiko.

Itxuraz delako metodo aktiboak erabiltzen dira, hots, ekintza

rat zuzenean eragiten dutenak. Eskola erabiltzen duen hizkera abs trakto eta hotz hura alde batera egin daitezzen saioak laudagarri g er tatzten dira. Halere hezketa nahiz kultura hau kanpotik ixurtzen d d den aldioro zail gertatzen da oso, jendearen eguneroko bizitzan xert t atzea. Besteak beste jende honen bizitzaren sustratoa kulturaren a biaburutzat hartzen ez delako. Azkenik kultura molde eginak eta h hertsiak harriak horman bezala ezarri nahi dira. Hitz batez, alfabe t atzaileek borondate ona izan arren, berauk ari duten lana ikasle^{en} egiazko bizitzari arrotz gerta dakioke eta esperientziak frogaturik dakigu hala gertatzen zaiola.

Honetaz gain ere, alfabetatzaileen ekintza, maiz aski ez da teknika arrunta batzuk erakustetik harat iragaten, ez du teknika hau e tarik harat jotzeko posibilitaterik, lanaren hedakuntza gogoan hartu t urik.


Eta nolana^{hi} dela ere irakaskintza tekniko honen helburuak ez dira inoiz langileek berek proposaturikoak, ez-eta hauk elkarrizketan eztabaidatuak. Helburu oro aurrez ezarria da, eta langileek laister ohartzen dira bizi dituzten arazorik latzenak ez direla erantzunen bide horretatik johaki. Ez da batere harrigarri harreman hauk paternalismoz kutsaturik egotea.

Era honetako pedagogia baten barrenean kulturaren ikuspegi teknokratiko bat kokatzen da. Bestela esan, alfabetatze funtzionala deitu dugun molde honek, teknika batzuk erakusten ditu, arazo oso batek dituen alderdi soziologikoak eta azpi-egitura ukitu ere gabe. Guztia teknikaren ezarreraz erdiets daitekeala sinetserazi nahi izatea amets bakarrik ez-ezen teknikakeria ere bada. Teknikak badu b bere kontesto soziologiko eta politikoa, badu bazter utzi ezineko bere ingurua. Hauetarik berez eman nahi izatea, hauekin zer ikusi r ik gabekoa aurkeztu nahi izatea, teknika neutral baten alde ateratzea litzake. Eta berriz ere teknika neutraltzat ematea bere giza-kontestorik berez ematea litzake eta gizartearen eraketetatik harat ematen den teknika ez da egiazkoa.

Zientzia bat erabil dezan orok eta zientziaren lanetara jar dadin baino lehen badu gizarteaz eta munduaz ikuspegi berezi bat

eta baloreen mailaketa bat egina duke. Eta ikuspegi honen eragi - nez ari da lanean.

Alfabetatze funtzionalaren kasoan, teknikaren beraren helburuez deus guti esaten da eta gizon atzeratu hauei nolabaiteko trebetasuna erdiesteko laguntzen zaien mementoan, beste alderdi batzuk gorde egiten zaizkie. Eta gizona teknikaz jabe dadin oso garrantzitsu jorik ere areago da garrantzitsu gizarte honen eraketaz ikuspegi zehatz bat ukan deza. Hau beharrezko bait da non mugitzen den ikusteko. Jende hau bere egoeraz oharturik bere historiaren jabe izatera hel dadin nahi ta ezkoa da hezketak gizartearen ikuspegi kritikoa eman dezaion. Honetaz orain eta hemen mintzatu ordez gerora ko utz badezagu ikuspegi teknokratikoa finkatzen ari gara.



Ez da kasuz gertatzen, beste eremuetan demokraziaren aurka ari den AGINTEAK teknika guztien gaineratik baloratzea eta eraketan mailan egingen den aldakuntza sakon oro, teknikaren aurrerapena erdietsi dadineko uztea. Bide honetatik egiazko hezketa batek harrotzen dituen arazoak erantzun beharrean zeharkatu besterik ez dira egiten, zokoratu eta beti hurrango baterako utzi.

Beraz hezketa mota honen hutsak non hasten diren ikusirik, hezketaren beraren oinarri politikoetara jo beharrean aurkituko gara. Zeintzuk izan daitezke hezketa honen emaitzak baldin baloreen mailaketa bat egiteko mementoan jende xehea alde batera utz badi eta balore hauk ekonomiko xedeei soilki begira hauta badaitetz?

Baldin AGINTEAK teknikaz jabetzeko bideak erraz baditza, teknika beraren helburu ideologikoak isilean gordez, jendearen egi

azko iratzartzeaz eta bere historian esku hartzeaz bildur DELAKO
IZANEN DA:

Hezketaren molde honi Freire-n pedagogia oposatu zaio, bai-
na honetaz beste batetan mintzatuko gara.

X. Lekunberri



TTIPIEN GURASOEKIN

Oinarrizko Lege Berriaren arabera, zeren-eta irakas kintza globalizatua eman behar zaiela ttipiei gomendatzen bait du, P.P.C.ek argitara eman dituen testoak hautatu genituen haurri nahiz irakasleari buruz egokien bezala zirela ikusi ondoan.

Hamasei kuadernotan emanik da gaien bilduma, eta gai bakoitzak hamabost eguneko lana seinalatzen dio haurri esperientzia inportanteenen jabe egin dadin, beti ere ikastola eta bizitza elkarrekin herstuki lotzen dituelarik.

Esperientzia bizi hauk direla bide, haurrak zernahi espresio molde (hizkuntza, matematika, plastika, dinamika...) lantzen ahal ditu. Gisa honetan, heziketa eremu guztiak hartzen dira.

Ez da testo liburu bat haurrak buruz ikas dezan, ez. Ekintza liburu bat da bakoitza, ekinaz eta eginaz esperientziaren jabe dadin. Hargatik deitzen da kuadernoa, haurrak berak erabiliaz eta bere aportazioz hornitu eta aberas dezan, hamabost egunen buru.

Askok galdegingo du: non dira bada delako kuaderno horik, haurrak ez bait du euskaraz zenbait horri sastar baizik etxera ekartzzen? Honela, esan beharrik zein material falta handia dugun euskaraz.

Hargatik, gure lehen urratsa kuadernoko orri bakoitza lamina handi batetan ematea izan zen, egun oro egun oro orri berezi bat paretean kokatuaz. Etxera eramateko, ordea, gauza urria gertatzen zitzaion haurri. Hau izan zen bigarren urratsa: orri bakoitza poliki-piaz emanaz haurraren eskuetan uztea.

Lan nekeza eta handia nolana ere, eta ez dugu beste inork hartzen ez duen eginkizunik geure bizkar hartzen dugunik adierazi nahi honekin, baina bai ahal den sistima eta materialik onena bil tzen eta lantzen ahalegintzen garela gurasoei esatea. Ikus dezatela ere geurok asmatua ez dela, eta erdaraz izatekoz edozein liburute-gita

gitan saltzen bada ere, euskaraz ari garenek zer nolabait ere honela moldatu behar izaten dugula.

Konfidantza apur bat izan dezaten, johan den kursoan zehar erabilia dugun materiala dela esan behar, eta beraz urtebeteko esperientzia dugula jadanik.



Gainera, zenbait bilkura eta aztertzeren ondotik, Elgoibarko andereñoekin ados gaude material beraren erabiltzeko. Halaber, Mutriku, Durango eta Santutxukoekin ere. Gisa horietan, ekipoa lantzen dugun materiala da, elkarren artean banatuz nahiz elkarren esperientziak konparatuz edo bilduz.

%%%%%%%%%

Ikus dezagun orain, adibidez, eguneko lana zer-nola antolatzen dugun.

Lehenik, globalizatzea zer den adieraziko dugu. Haurrak, berak bizi duen edo ekarri duen esperientzia bat gogoan gogoan harturik abiatzen gara, eta ezagutza hori lantzen dugu: lehenik esperientziaren eremuan, hizkuntzaren eremuan gero, matematikaren eremuan, plastikaren eremuan, eta azkenik, dinamika edo mugimenduen eremuan.

Nola burutzen den hau dena?

Ikus dezagun. Hona hamabost egunotako gaia: LANDA eta beronen barne:

- GARI SOROAK

-BARAZKIAK

MAHATS BILTZEA

-FRUITU ARBOLAK

-ANIMALIAK

-BESTA ETA ERROMERIAK

Esaterako, mahats biltzea hartzen badugu etsenplutzat hona nola desarroilatu zen:

Haur bakoitza aurrean daduka orria. Esperientziaren eremua lantzeko eman dezatela haurrek horretaz dakitenaren berri eta bat besteari ~~entuz~~ ororen iritziak biltzen dira. Normalean, nola gure baserrietan hala inguru herrietan mahastirik ez den, baserriren bateko mahatsondoa aipatzen zuten haurrek. Baina orrian mahasti bat agertzen zenez, zenbait argazki, lamina, etab. eta andereñoak esaten dienaz gain, aski osatua gelditzen da gaia.



Ohartzen bazarete, haurrek, beren esperientzien berri ematen dutelarik, hizkuntza lantzen ari dira. Beraz, hizkuntzaren eremuan lortu behar diren helburuak proposatu behar dira, eta zehazki hitzen esanahia ikasiz erabiltzeko moduak egin: mahatsondo, mahasti, mahats, mordo, ale edo bikor, ardo... Gero, esaterako, haur bakoitzak hitz hauetariko bat hartuaz esaldi bat osatu behar zuen.

Honela bada, iragan ginen matematikaren eremua. Baina horretarako, irudiak asko laguntzen duenez, gauza naturalak eta artifizialak ezagutzen eta elkarren gandik bereizten ahalegindu ginen lehenik.

Esan gabe doha, plastika espresioaren eremua landu genuela matematikarena baino lehen. Orduan, gauzaki artifizialak hartu (oihal pusketak, kola, papera, haizturak...) eta denon artean mahats mordo bi moldatu zuten, oihalez bata, eta paperaz bestea.

Lana banatuz (haur bakoitzak mahats ale bat-edo eginkizuna) eta gero lana bilduz, behar zen mordoa osatu. Banatu eta batu,

hona nola matematikaren eremuan sartu . Ez genuen gehagorik mate
matikari buruz landu .



Azkenik, Dinamikaren espresioa eza
zarri behar zitzaion eginkizunari, e-
do kasu honetan, mahatsaren esperien-
tziari . Horretarako, garia biltzen e-
ta mahatsa biltzen adierazten zuten orri
orriak hartu eta talde bitan, bakoï -
tzak gogo zuenaren arabera, eginki-
zun biok banatu ziren: mimikaz, kei-
nuz edo jestuz idurikatu behar zue-
larik talde bakoitzak berea .

Mahain bakoitzean lau haur direnez,
lauko bakoitzak eginkizun bat edo
bestea hautatu zuen . Gero, idurikatu, eta ongi idurikatu ere .
Hona mahats biltzea zela-eta nola osatu zen egun beteko eginkizu-
na . Ez genuen irakurketarik egin ahal izan .

EE

Bidenabar halere, esan dezagun, metodo globala erabiltzen
dugula irakurketari buruz . Sei urte arte ez du Lege Berriak irakurtzen
hastekorik agintzen . Har gogoan adin honetan hasten dela eskola-
ren obligazioa . Alabaina, ttipien ikastolak biziki gomendatzen dira
haurra irakurketa-idazketarako presta dezaten .

Haurrak, adin horretan, letrak ezagutzen jakin ala ez, ez da
beste gabe inportantzia handia duen gauza, eta etxean ere ez dio-
te eman behar haurraren baitan dorpea eod traketsa den beldur-i-
kararik sor ez dadin . Izan ere irakurtzen sei urtetan hasi behar
du .

Hori horrela, arestian esan dugu nola metodo globalaren hauptapena eginik dugun ikastolan. Ikus dezagun zertan datzan.

Orain arte ezagutu izan dugun metodoa analitikoa deitzen dena zen: alegia, letraz letra irakurtzen hasten zen haurra, silabak josten gero, hurrena hitza osatzen, eta azkenik, esaldia. Arrunt bestalde gertatzen da globala: esaldia-hitza-silaba-letra.

Eta zergatik hau? Ez da guk asmatua, eta sikologiaren oinarri fermuan finkaturik datza. Denok dakizute berari interesgarrien zaiona ikasten duela ongien, berak bizi duen huraxe eskuarki.

Horra bada, zeurok ebaki silaba eta letra hotza ote zaion interesgarrien ala... berak begiz ikusi, eskuz ukitu eta izenez deitzen dituen gauzakiak?

Oinarri hauetan beraz, finkatzen da geure metodoa, eta gu bezalaxe gaur egun metodoak eraberritzen ari diren guztiena, bide honetatik bait dohaz.

Metodo honi idealki jarrai balezaio, ez lizateke analitikora johan beharrik izanen, baina oraino bideak hain garbi ez direnez, eta bazterretan nahasi-mahasi apur bat denez, aste oro hitz eta letrak ikasten ere ihardun ohi gara.

Hau nola burutzen dugun?

Hartzen dugu aste oro esaldi bat asteko gaiari dohakiona. Hara, adibidez, johan den astekoa.

-Esaldia: NEKAZARIA LANDAN ARI DA LANEAN.

-Helburuak: bost hitzok ikastea. Horietarik bat aurreko astean ikasia zuten. Analitiko helburua: KA eta LA silabak ikastea. Horretarako:



hau? ... Arraia
DA

Zenbait ariketa indibidual:

A) - NEKAZARIA adibidez. Marraztu-erazi nekazari bat, eta idatz dezatela hitza azpian nahi hain bat aldiz.

B) - LANDAN hitzarekin. Iduripenez sumatu landako gauzakiak, eta egin esaldiak:

- LANDAN dago

- LANDAN dago

- ARI DA hitzekin. Pentsa norbaiten ekintza bantzuetaz, eta esaldi batzuk egitea:

.....ARI DA

.....ARI DA

-LANEAN..... ari da

-LANEAN..... ari da

B) Txarteltxoak laguntza bezala harturik esaldiak egitea. Lehenik aste honetan erabili eta ezagutu dituzten hitzekin, baina baita gero aurreko asteetan ezagutu dituztenekin ere.

Eman esaldi bat osagabeko bat, eta osa dezatela

Gero, sei-zazpi esaldi hitz hauekin eginitakoak irakur ditzatela.

Hastapenetan, helburuak beti ere ttikiak dira, baina lanak bere fruitua ematen du. Gogoz dihardute lan honetan, baina ez dira sobera nekarazi behar. Badute urrengo egunean ere aski denbora.

Uste dugu konprenitzen dututela gure lana. Hobeki, gure e-

ta zeuron lana, zeren-eta guraso eta irakasleok batera jokaturik e-
ginkizun honetan ere aise jatorrago landuko bait dugu haurra.

KONTXI ETA LIBE



..... ARI DA ...

BATZAR NAGUSIARI EGINDAKO AGIRIA

o-o

Arrasaten gertatuaren berri.

I.- Liberatuaren historia.

II.-Liberatuaren beharra.

1.971 -72 kursoan Arrasate bailarako herriak (Oinati, Eskoriatza, Aratxabaleta, Arrasate, Elgueta, Antzuola eta Bergara) elkarrekin biltzen ginen, zenbait gauza elkarrekin aztertzeraz, herri bakoitzetik irakasle bat eta juntako bat joaten zelarik.

Eta ikastolan lan asko zegoela ikusirik eta ikastolen artean batasun bat komeni zalako, liberatu bat aukeratzea pentsatu zen.

1.2.- Liberatuaren lana izango zen :

a) Irakasleei (maisuei eta andereñoiei) ikastola lanerako bideak erraztu. Denek dakite adibidez zer liburu, texto eta fitxa guti ditugun ikastolan lan egin behar dugunok.

b) Ikastolak koordinatu: ikastola batetan egiten dena bestetara eramanez; ikastola denetan programa bat egiten saiatu.

d) Gurasoekin bilerak egin, pedagogia aldetik informatzeko.

e) Irakaskintza programak betetzen diren zaindu.

f) Pedagogia liburuak aztertu, metodoak hobea gogotzen lagundu.

Denon artean liberatua aukeratu behar zela erabaki genuen eta honela 2 kandidatu presentatu ziren : Joxe Ariznabarreta eta Euxebio Osa.

Bakoitzaren informazioa jakiteko geratu ginen, gero bata edo beste

a aukeratzeko bailara guztirako.

Aukeratze honetan, irakasleek parte izan behar zutela ikusten zen. Irakasleekin lan egiteko beharrezkoa ikusten genuen hori.

1.4.- Arrasateko erabakia.

Bakoitzaren informazioa batu eta aztertzen ari ginen.

Ordurako, Ariznabarretak esanda zeukan Arrasateko juntari:bera ez zegoela ondo euskera aldetik, eta ikastolan erabiltzen den pedagogian ez zeukala esperientziarik. Bere ustez, bera ez zela egokia lan honetarako (hau Ariznabarretak aitortu zuen ostiraleko batzarrean).

Hala eta guztiz ere, Arrasatek erabaki hau hartu zuen: Arrasateko zuzendari Ariznabarreta izango da. Bailarako beste herriek nahi badute, har dezatela bera, edo bestebat aukeratu. Nahi ez badute, Arraseterako geldituko da.

Irakasleek ez zuten onartu erabaki hau. Gainera juntak adierazi zuenez, Osa aukeratzeko bazen, Koperatibak, Kaia Laboralak eta A-yuntamentuak ez zutela lagunduko.

2.- Maiatzeko batzar nagusia.

Erabaki hori hartu ondoren, irakasle eta iuntaren artean burruka gogorra sortu zen. Juntak batzar nagusi bat egitea erabaki zuen.

a) Batzar honetarako informazioa honela izan zen: Juntakoak bere informazioa zabaldu zuten aurrez eta hitzez; baina irakasleei egunean bertan abisatu zitzaizkien eta ordu batzuk lehenago zabaldu zuten heuren informazioa.

b) Batzar barruan irakasleek ez zuten behar bezela hitz egiterik izan: berandu abisatu zitzaizkielako ondo gertatu gabe ioan ziren.

d) Irakasleen asmoa egun hoietan zer gertatu zen agertzea zen, hau da:

-Liberatua ezarria izan zela irakasleekin eta juntako denekin

kontatu gabe.

Juntak, jendea ondo informatu baino lehen, botaziora jo zuen. Botazio hark baliorik ez zuela eta irakasleek kontra egin arren, botazioa egin zen eta juntak nahi zuen konfiantza botoa edo autoridadea lortu zuen.

Autoridade hau lortuz gero agiri bat agertu zuen. Irakasleek onartu egin behar izan zuten, bestela ikastolatik kanpora botako zituzten eta.

1.972-73 kursoa.

3. Astelehena, Urriak 23

Ariznabarreta boikoteatu egin zutela eta Urriak 23-rako, bilera bat jarri zuen juntak. Bileran honetan, batzar nagusiko ondorioak onartu ala ez eskatu zitzaien irakasleei.

Kurso honetan hasitako irakasle berriak ikusirik, irakasleek 8 eguneko epea eskatu zuten ondorioak aztertzeko. Ezezkoa hartu zuten. Eta erantzuna emateko eskatu zirenean, taldean emango zutela adierazi zuten.

Ondorean, irakasleek bilera utzi nahi izan zuten, baina giltzak uzteko agindu zien juntak eta gehiago ez joateko ikastolara. Hurrengo egunean, ikastola hitxi egin zen, baina irakasleak ate aurrean egon ziren, guraso eta haurren kontra ezer ez zutela esanez.

4.- Ostirala, Urriak 27.

Ikastala hitxirik geratu zenean, ostiralerako batzar nagusi bat jarri zen.

Batzar honetako programa:

1. Juntaren agiria
2. Irakasleen agiria
3. Ariznabarretaren agiria
4. Botazioa

Batzar nagusi hontara beste herrietatik ere joan ginen irakasle eta juntako (Oinati, Elgeta, Legazpia, Goiherri, Gemika, Denostia, Durango, Motriku eta Debatik).

Gure iritzia: Batzarrean problema gaizki azaldu zen:

- a) Irakasleeri jarritako kondizioak ez ziren aztertu. Gure ustez kondizio hauetan dago gaitzaren iturria.
- b) Kondizio hoik ez dira oinarritzen umeen beharretan, batzuen interesetan baizik (gizon pasiboak, pertsonalitate gabe, inoren agindak zintzo egin go dutenak, gizon teknikoak: ez gizon osoak).
- d) Juntak alternatiba bat jarri zuen: irakasleak bota edo irakasleak geldituz gero, Juntak dimititu. Juntak agertu zuen: "Guk jarraitzen badugu ikastola astelehenean zabalduko da. Bestela, ez gara egiten erresponsable".

Jendea larritasun batean jarri zuten. Alternatiba honen ordez problemaren azterketa behar zen. Juntak agertutako informean ez zen ikusten irakasleak botatzeko arrazoirik.

- e) Juntak ez zuen beste soluziorik onartu: Beste Junta bat egin arte jarraitzea. Junta eta irakasleak gaizki konpontzen badira ere, ez dela arazoia irakasleak kanpora botatzeko. Honela ez zen botazio beharrezkoa.

- f) Behin baino gehiagotan eskatu zuten irakasleek zergatik eta zeintzuk bota nahi zituzten.

"Por incompatibilidad" botatzen dituztela. Baina zeintzuk bota nahi zituzten geroago esango zutela.


- g) Juntak ez zuen ezer pedagogiaren aldetik irakasleen aurka. Irakaskintza aldetik Ministerioko programa betetzen zutela agertu zuten eta zenbait puntutan programak baino hobeto zaudela.

- h) Beste herrietako agiririk irakurtzen ez zuten utzi (Oinati, Elgeta,

Goiherri, Legazpia).

Hala eta guztiz ere, Juntak botazioa agindu zuen eta botazioan 112 Juntaren aurka eta 264 alde irten ziren.

Oinatin Urriak 30-1.972



ARRASATEKO IKASTOLAKO GURASO-BATZORDEARI

Guk, Goiherriko Gurasoen Batzar nagusiko arduradun eta irakasleok, Arrasateko Ikastolako Guraso-Batzorde eta irakasleen arteko eztabaida eta arazoaren berri ikasirik, puntu hauk jakinarazten ditugu:

- 1) Pertsona guztiek dutela beren lanean segurantzia minimun bat izateko eskubide, ez daiteke eperik edo beste kontsideraziorik gabe kalera inor bota.
- 2) Ikastola barruko arazoetan Batzordeko gurasoek bertan irakaslerik ez dela erabakiak hartu eta irakasleak erabakiak betetzera bortxatzeak, ez dugu uste giza jokabidearen zentzurik ere badunik. Beraz, ez dugu inolako moduan onartzen.
- 3) Ikastolari buruz zerbait eztabaidatu behar denean, nahiz gurasoen batzar nagusian, nahiz-eta batzordean, beren iritzia agertzeko eta emateko eskubide dutela irakasleek.
- 4) Irakasleek heuren artean, gurasoek beren artean bezalaxe, zenbait problema irakasleei bakarrik dagozkienak tratatzeko, non la herrian hala bailaran, zernahi bilkura egiteko eskubide dutela, eta beraz, ez dela juntarik hori galerazi lezakenik.
- 5) Gorago agertu ditugun arrazoin hauen ondorioz, bidezko jokabidetzat ematen dugu alde batek bakarra, nahiz guraso nahiz irakasle, ezarririko zuzendaririk ez onartzea. Guk behintzat, ez genukeela onartuko esan behar.
- 6) Pedagogiari dohazkion erabakietan irakasleek dutela berezi ziki hitza, uste dugu. Halere, gurasoen iritziak bilduaz eta arrazoiak entzunaz jokatu behar litzakeela ez dugu ahaztu nahi.
- 7) Azkenik, gizarte mailan zapalketarik onartzen ez badugu, are guztiago irakaskintza mailan, guraso eta irakasleok elkarrekin haurraren hezibide jatorra nahi badugu, behintzat.

Oharrak:

- Ez dugu nahi bezain informazio osorik bil ahal izan, baina bai esan duguna baiezteko bezainbat.

- Eztabaida guztietan bezala, bi alderdietan izango direla hutsegiteak uste dugu, eta beraz, ez dugu batzuk salatu eta besteak xuritzeko asmorik.

- Alabaina, hainbateko jauntxokeria eta indarkeriazko zapal kuntza jotzen dugu batzordearen zenbait jokabide, ez bakarrik A - rrasateko irakasleak baita beste gaineratiko irakasleak ere zapaldu duak izan direla esan behar.

GOIHERRIKO IRAKASLEEK

Izenpetu dutenak:

Arrasateko Ikastolako Informe Bat

Denoi, hamazazpion, akusazio bat egin zitzai-
gun: Zuzendariari, Ariznabarreta jaunari, boikot egiten geniola.
Eta ez dakigu zergatik, hontaz beuren erabakirik agertu gabe, erant-
zun pertsonala eskatu zitzaigun. Aurtengo maiatzeko Biltzarraren
ondorengo erabakiak edo oinarrizko kondizioak irakurririk, BAI ala
EZ esan behar genuen bakoitzak. Ez esanez gero, kanpoan gelditzen
ginela. Hori bai, eztabaidatzeko, gauzak garbi jartzeko posibilita-
tea baomen genuen. Jokabide hau ez genuen ondo ulertzen.

Guk, lana denok elkarrekin egin behar dugunez gero, erantzu-
nak taldekoa izan behar zuela esaten genuen. Eta, planteamendu hu-
ra hala garbi ikusten ez genuelako, zortzi egunetako epe bat eska-
tzen genuen. Denok elkarrekin ez baldin bagaude, alferrik da bako-
tza bere gelatik irtetea bilerak egiten ibiltzea eta zenbait ikastal-
ditara joatea. Memento hartantxe geunden denak bat egin da eta
nolabait batasun horri indarra eman nahi genion.

Baina taldeko erantzunik ez zen onartzen eta eperik ere ez.
Orduan, batek esan zuen, gauzak hala baldin baziren erantzuna e-
zezkoa zela, planteamendu hura hala ez gnuela onartzen, alegia. (1)

Eta giltzak kendu zizkiguten.

Hurrengo egunean ikastolara joan ginen denok. Baina ikasto-
la hertsirik zegoen.

Hauk astelehen arratsaldeko eta astearte goizeko (urriak 23
eta 24) kontuak dira. Asteartean berean Batzordeak gurasoak eta
laguntzaileak ostiral gauerako Biltzarrera deitu zituen.

Biltzar horretan jende asko zen. Zenbat?-esateko ez
dakigu.

Batzordeak bere agerpena egin zuen, maiatzeko Biltzarretik
abiaturik. Guri boikotaren akusazioa egiten zeukute. Gero, ande-
reño batek egin zuen irakasleen agerpena.

Batzordearentzat eta Zuzendariarentzat akusazio asko agertuz, eta
gure postura explikatuz.

Eztabaidako garaian dena gutxi gora-beherako kontua zen,

dena diskutiblea eta erlatiboa. Inork ez zuen ikusten behintzat irakasleek taldean bota eta ikastola herstekeko motiborik. Batzordeko batek edo bik, gero esan daukutenez, hori dena aurretik agertu izan bagenu, aste bete ez, hilabete eta gehiago emango omen zeukuten epe bezala. Baina guretzat ere batasunik gabe inposiblea zen hori dena agertzea.

Dena dela irakasleek Biltzarrean onartzen zuten:

- Batzorde baten autoritatea.
- Zuzendari konpetente bat.
- E.G.B. delakoaren programa betetzea.

Eta eskatzen zuten :

- Astelehenetik denak barruan ginela ikastola irekitzea.
- "Reglamento de régimen interior" delakoa.
- "Junta de Enseñanza" edo delakoa.
- Eta langile agiria.

Eta, gainera, guraso batzuek proposatzen zuten estatuto batzuk jartzea. Batzordeak hau zela berak ere zedukan ardurarik handina erantzun zuen. Beste guraso batek proposatu zuen Komisia zaindari neutral bat eratzea, behar bazen ordaindurik, honelako gora-beheretan, kontuak beroan diskutitzen ibili beharrean, beste batzuek gaineti otzean aztertu eta agertu zitzaten. Batzordeak hau ez zuen onartu.

Eta eztabaidatzeko zegoen gaia mozturik, bere proposamena egin zuen agertuz:

-Guk erabakia hartuko dugu, batzuk hartu eta besteak bidalitz.

-Biltzarrak hau onartzen ez badu, guk ondorio guztiez, dimititu egingo dugu.

Eta gurasoak esan zuten :zuek dimitituz gero, aurrera begira, ikastola nola gelditzen da? (2)

Eta Batzordeak : - Or konpon!


Orduan irakasleek eskatu zuten agertzeko zein ziren bota behar zituztenak, eta horretarako arrazoiak. Erabaki gabe zedukate eta erantzun zuten Batzordekoek. (3)

Eta botazioa egin zen. Eta, berriz ere, Batzordeari utzi zitzaion erabakia hartzen. Askok ez zuen botatu.

Gero gertatuaz andereiño asko da testigu. Hau nahiko luze bada.

- (1) Kontua nondik nora zetorren irakasleok ez genekien. Eta erabakita genedukan, nahiz erantzunik ez eman, denok ikastolan jarraitzea kontua garbitu arte.
- (2). Ikastolaren gelak Aiuntamentuarenak dira eta Aiuntamentuko bi Batzordekoak dira. Eta Arrasateko kooperatibek ikastolari laguntza handia ematen diote.
- (3) Aurretik bi andereiñok beste irakasleekiko har-emanak moztuak zituzten, eta, orain ikastolan jarraitzen dute.

Arrasateko irakasle batek.



ARRASATEN GERTATUAREN ONDORIOAK

o-o

= "Zer arrazoi dituzute gu ikastolatik botatzeko?"

-- "por incompatibilidad con la junta"

"ikastolaren oinarriak onartzen ez dituzutelako"

Hona hemen Arrasateko ikastolaren oinarriak puntu, koma eta guzti.

BATZAR NAGUSIAREN ONDORIOAK

Ondorio hauek bi izan dira nagusi:

Bat) Herriak zer itxaroten duen ikastolatik, eta honek zer erantzun eman behar dion gaurkoz.

Duda handi gabe esan liteke herriaren edo gurasoen kezka handiena, haurrak ondo prestaturik ikastolatik ateratzea dela, eta prestaketa hau jakintza edo kontenido aldetik esan nahi du; hori bai, prestaketa hau euskaraz eta euskaldun bezala harturik.


Eta gaurkoz hori bada gure herriaren kezka eta egarria ikastolak egarri hori betetzen joan behar du. Egarri hori ondo betetzen baldin badu, ikastolak bere egitekoa bete du; Beste gauza bat izango da egarri berriak eta sakonagoak herrian sortu-eraztea, eta hori norberak ikusi behar du komeni zaion ala ez, baina dena dela, ikastolek ezingo dute herriak gaur egun sentitzen ez duen egarriaren bila joan.

Esan dezakezute, herri osoak ez dituela egarri horik bakarrik senditzen, eta gure erantzuna da, ongarri izango litzakeela bi edo hiru motako ikastolak eskaintzeko posibilitatea eta ahalmena ukaitea, baina bat bakarrik eskaini dezakegunez, bakar hau gehien baten iritzikoa izan beharko da eta gutxienez orduan bakar horitan sartu edo beste bat sortu beharko dute.

Bigarrena) Ikastolak batzorde honen agintepean ibili behar du.

Garbi ikusi zen autarki bitartez Batzorde honek duela azken hitza ikastola barruan. Honek ez du esan nahi inolaz ere arrazoi gabeko aginte bat izan behar duenik, ez da gutxiago ere irakasleen eskubideak ez direla izango beti irakasleak pentsatzen dituzten guztiak.

Batzorde honen agintearen lenengo ondorioa da izendatutako zuzendaria onartzea, eta onartze hau uste dugu ez dala izango "beste erremediorik ez dago eta hemen ibiliko da"ez. Elkar ulertu, elkarrekin lana egin eta ahal dan probetxu gehiena ateratzeko prest egongo zaretela uste dugu, ez bait dago beste biderik aurrera egiteko.



Azkenik, batzorde honek uste du, puntu hauekin ados baldin bazaudete, lan asko egin dezakegula Arrasateko ikastola alorrean, nahiz-eta iritzi desberdin asko eta eztabaidak izan.

Bestalde, puntu hauekin ados ez bazaudete, mesedez eskatzen dautzuegu kalte haundiagoko burrukak sortu baino lehenago, euskaldun etanlagun bezala azaltzeko eta zuen asmo

ak beteko dituzuen tokiren batera alde egin, zeren-eta ikastola honetan eta gaurkoz, hauetxek dira bideak, eta bide hauetatik jokatu beharko da.

(Hau da Maiatzeko Batzar Nagusia egin ondoan, Batzordeak egindako agiria.

Agiri honetan daude irakasleentzako kondizioak edo ikastolaren oinarriak. Ez dut ezer aldatu zenbait ukitutxo ortografiaren aldetik eman baizik. Azpi marrak orijinalekoak dira, baita puntu eta komak ere. Beste orri batetan zuzendariaren eginkizunak dakar

ki. Luzeegi delakoan ez dut azaldu. Erderazkoa, are nabarmenago da.

Ondo irakur badezazute, juzgatu oinarri hauk bidezkoak diren. Merezi ahal du oinarri hauen gatik 17 edo 15 irakasle kalera botatzea?

Guzti honek zenbait ondorio dakarzkiz burura. Eta zerbait pentsatu eta erabaki beharrean garelakoan nago.

I. IRAKASLEEN NORTASUNA

Arrasateko kasuan, irakasleak haur bezala erabiliak izan dira:

a) ikastolako oinarriak aztertzerakoan ez zuten hitzik egite-rik izan. Onartu ala kalera. Aztertzeke eperik ere ez zitzaien eman.

b) Batzordearen aurrean ez zuten nortasunik (ikastolak Batzorde honen Menpean ibili behar du). Irakasleak morroi hutsak ziren beraz.

d) Zuzendaria (hasiera batean "liberatu" baten bila ibili ginen bailara osoan guri laguntzeko ez gu zaintzeko) goitik behera ezarri zitzaien. Irakasleek inkapaz edo maltzur ikusten dira horrelako zuzendari baten beharrean egoteko.

ONDORIOA:

Irakasleek nortasuna behar dute bere lanean: inoren morroi izan gabe. Horretarako bakoitzaren egitekoa eta nortasuna garbi utzi behar da: irakasleena, batzordearena, gurasoena eta zuzendarie-
na, ikastola barruko araudi-edo antzeko zerbait eginaz.

2. INFORMAZIOA

Informazioa bizkor eta ongi emateak zer garrantzia duen, garbi ikusi da oraingo honetan: lehenengo ordutik irakasle eta guraso batzuk arduratu balira, Arrasateko arazoak ez zuen orain duen entzu

nik eta indarrik izango.

Irakasleen elkartasuna informazio on baten ondotik etorriko da. Ez da esan nahi elemendu bakarra denik, halere. Arrasaten, lehenbiziko egunean, 40 bat irakasle bildu ziren eta askoz gehiago bigarreanean. Baina, seguru nago, herriz herri ibili ezik, jende asko iratiaren informazioarekin konformatuko zela soilki: "utzi egin dute ikastola".

Hemen, bada, informazioaren garrantzia azaldu nahi dut: edozer gauza interesgarri gertatzen delarik, behar dela hedatu ahalik eta lasterren oldez edo moldez baina informazioa eman.

3. GURASO ETA GAZTEEKIKO LANA

Ez noa gauza berririk esatean. Eta denak konforme direla uste dut.

Zenbat guraso eta gaztek ote lukete onartuko maiatzeko informen hori, pitintxo bat kezkatuz gero? Baina Arrasaten horrelaxe gertatu zen eta gertatu da: nahiz eta ikaragarriko kontradizioak egon (1), haurren gurasoek Batzordearen alde botoa. Guttik egin zuten benetan kontra, eta orain ere askoz gehiago bildu arren, arrunt gutti arazoaren halako dimensioa ikusirik.

Betiko masa hori (ez-jakina, errazkeria eta beldurraren zaku handi horretan den masa hori, alegia) astin du beharra dago. Ez dezatela dena batzordearen bizkar bota: beroni kontuak eskatzen ere jakin dezala.

\$

Beste ondorio zenbait ere atera litekeela uste dut.

Lehenbiziko ondorioari buruz komisio bat sortu zela esan behar dut.

Arrasaten, Urriak 31 hartu zen erabakia, giputz eta bizkaitar denak batera, irakasleen eskubide edo lan-kondizioei buruz zerbait ateratzeko. Ahalik-eta arinen ikus ditzagula lan horren fruituak.

Tomas Elorza

(1) Gurasoek ez dute deus irakasleen kontra, baina halere junta hau eta irakasle hauek ezinkonponduzko denez, kanpora! irakasleak; irakasleek bailara osorako liberatua nahi, Arrasaterako zuzendaria ezarri batzordeak; inoiz ikastolan arizan gabeko gizona izaki, esperientzia egitera etorri omen, eta klaseak ikastolaz kanpoko ikastegi batetan emanaz, ikastolaren zuzendari; batzordeak aginpide oro eta osoa, eta irakasleek, aldiz, ez beren iritzia emateko ahalmenik, ez-eta epe baten eskubiderik; etab.



PORTUGALEKO IKASTOLAN GERTATU DENAREN INFORMAZIOA

Portugaleteko ikastolan azken bolada honetan gertatu den arazoaren berri ematen hasi aurretik, komenigarria ikusten dugu Ikastola noiz, nola eta zergatik sortu zen jakin eraztea. Beraz, labur labur, dihoakizue azalpen txiki bat.

Portugalete delako "HERRIKOA" Ikastola, orain hiru urte sortu zen eta Kooperatiba moduan eratu. Kooperatiba hau sortu aurretik Ikastola, Elkarte baten barnean zegoen. Laster konturatu ziren gurasoak Elkarte eta Ikastolaren helburuak berdinak ez zirela; Ikastola ez zitekeen Elkartearen helburuei begira enfokatu. Nahia eta nahiezko ikusten zuten gurasoek, Ikastolak berezko askatasuna behar zuela bere lana aurrera eramateko. Bestalde, Elkartek eskaintzen zuten tokia ez zen oso egokia. Arrazoi guzti hauk zirela-eta, gurasoek Elkartetik alde egitea erabaki zuten.

Lehen pausoak eman zituzten: Kooperatiba bat eratu (diru eta lege aldetik biderik egokiena zelakoan), tokia aurkitu eta prestatu, Kooperatibista berriak billatu etab. Horrela, 1.969 ko Urrian hasi zen "HERRIKOA" Ikastola funtzionatzen. Esan beharra dago, lehen go Elkartean guraso batzuk gelditu zirela eta han ere, Ikastola txikiago bat osotu zuten. Beraz, Portugaleten Ikastola bi dira.

Kooperatibako gurasoen Ikastolako helburuak markatu zituztenean argi eta garbi ikusten zuten guraso guztien parte hartzeko premia alderdi guztietan, baina batez ere finantziario arloan. (uler tzekoa da E.G.B. osoa egiteko gai den halako toki batek zenbat balio behar duen). Hori dela eta, Ikastolan hilerokoa ordainduaz aparte, kooperatiba ere diru mordotxoa laga behar zuten gurasoek. Egoera honetan, ezinbestean nonbait, erraza da igartzea zer jende klasek osatzen duen Ikastola.

Ikastola barneko antolaketan gurasoen batzorde bat dago; beraz da arazo guztiez arduratzen dena. Andereñoak ere, oso premiazkoa ikusten genuenez gero, berekin batera lan egitea, batzordearen batzarretan parte hartzen genuen. Aurten gainera Pedagogia batzor-

de bat eratu zen gurasoekin lan haundiagoa egiteko asmotan. Batzorde hau ama batzuek eta andereñoek osotzen genuen.

Orainarte ondo joan dira gauzak;problemarik ez delako sortu beharbada. Gurasoen burukominik larriena ekonomiaren arazoari soluziobide bat ematea izan da, eta problema horretan murgildurik, barne barnetik sortzen ari ziren arazo txikiei kasurik egin ez, eta konpondu gabe laga dira.

Aurten baina, txikikeria guzti hoik azalera atera dira problematika bat sortuaz. Gure ustez, problema bat sortzen denean konpondu egin behar da nahi eta nahiez, eta elkar-ulertze batetan finkatu az, denon artean soluziorik egokiena aurkitzen saiatu. Horretan ihardun dugu andereñoek uda guztian zehar, baina alferrik izan da. Gurasoek beste soluzio bat aurkitu zuten;problema sustraitik "garbitzea":horretarako erabaki aldaezin bat hartu zuten:ANDEREÑO-AK IKASTOLATIK BOTATZEA.

Ondoren dihoakizuen eskutitza guraso guztiei bialdu genien. Bertan azaltzen dautzuegu abuztuarteko gertaera guztien haria.

Hemen, guraso guztiei eginiko karta bat dator interesgarria, baina erderaz da, eta sobera luzea da eman ahal izateko. Gisa onez egina da, eta ez dio deusetan inorri faltatzen; bai ordea, gauzak argi eta garbi ipintzen, guraso batzordeak hartu dituen jokabideak batipat. Laburki emanik, hona hemen aipatzen diren puntuak:

.- Sarreran, herrian andereñoekiko sortu den zenbait esames aipatzen du. Nola azken-batzarrean mintzatzeko eskubidea kendu zitzaien eta nola andereño bat ikastolaz kanpo bidali duten, beste biri onez onean ateratzeko esanaz.

.- Pedagogia: puntu hau ukitzen da ondoren. Izan ere, andereñoek ari duten lanera edo pedagogia-metodoa ez funts eta ez deus zalantza batetan ipini bait da. Makurrena gainera, urtean zehar espreski horretarako gurasoekin (irakur haurren amekin) frango bilkura egin eta zehatz-mehatz nola lan egiten duten ikastola barruan

adierazi ondoan.

.- Erljioa: arazo hau planteatu zelarik, behar bezala aztertu eta ikas ez dadin guraso-batzordeak ezarri dituen oztopoak aipatzen dira.

.- Organizazioa: aldetik, andereñoek koordinatze lana planteatu zutelarik, entzungor egin zitzaiela esaten da, eta geroago, berauekin kontatzeke, nola pertsona bat izendatu zitzaien, hobeto esan, goitik behera ezarri zuzendaritzat. Pertsona bat lehenik, gero bestea.

Azkenik, guraso-batzordekoek harturiko zenbait kontradiziozko jokabide erakusten ditu, eta nola, ondorioz, hiru andereño kanpora botatzeko erabakiaren berri ematen.

Hona kartaren bilduma eta sei andereñok izenpeturik doha. Eta informeak honela jarraitzen du:

"Aurreko eskutitzean ikusi duzuen bezala, Ikastolako Batzordearekin batzar bat egin genuen; izan ere, andereñoak botatzea inongo arrazoirik eman gabe, harrigarria iduritzen zitzaigun. Arrazoi hau jakiteko eta berekin konponketa bat egitera heltzeko egin genuen batzarra. Nahiz-eta egoera larri honetan izan, itxaropena genuen arazoa konpon zitekeela eta ahalegin guztiak egin genituen horretarako.

Batzar hau guztiz alferrik izan zen; Batzordearen erabakia al daezina zen: ANDEREÑO BAT BOTATZEA BERE ORDEZ KANPO-TIK ETORRITAKO ZUZENDARI BAT IPINTZEKO. Arrazoi bat edo sasi-arrazoi bat behar zuten horretarako eta andereño horrek titulorik ez zuela aipatu zuten aitzekitzat. Zergatik ez zuten horretan pentsatu andereño hori onetsi zutenean? Argi dago garai hartan derigorrean behar zutelako. Esan beharra dago andereño hau botatze a gauza guztiz normaltzat hartzen zutela.

Beste bi andereñoek buruz ez zuten ganorazko arrazoirik e

man. Egoera ulergaitz honetan murgildurik, beharrezkoa ikusten genuen guraso guztiei arazoaren berri jakin eraztea batez ere parte har zezaten gora-behera garrantzitsu honetan, eta, bide batez, gertaera guztien azterketa sakon baten finkaturik, Batzordekoek hedatu zituzten gezur, irain eta zurrumurruak andereñoi buruz argitan ipintzeko.

Gure asmo hau aurrera eramateko abuztuaren bigarren astean gurasoekin batu ginen. Nahiz-eta batzarrerako deia guraso guztiei bialdu, %25 bat bakarrik etorri zen. Batzordekorik inor ez zen agertu, beraz arazoa gurasoen aurrean ezin izan zen konpondu. Dena dela, euki zuten gurasoek aukera ederra guri buruzko problematika argitzeko eta konturatzeko Batzordekoak gure kaltetan zabalduko zurrumuru guztiak gezurretan finkaturik zeudela. Halarik ere, negar garria izan zen konturatzeko gurasoek, egiaren jabe izan arren, haren alde jokatzeko adorerik ez zutela ukan Batzordearen makurkeriak otzan-otzan onartuaz.

Gurasoak gertaera guztien jabe izanik, Batzordekoek azalpen bat eman beharrean aurkitzen ziren eta Batzar Nagusi batera deitu egin zieten guraso guztiei. Batzar hau Abuztuaren 22 izan zen. Batzar horretara andereñoak ez ginen deituak izan baina beste pertsona baten bidez lortu genuen bertara joateko Batzordekoen baimena edo. Bagenuen zerbaiten itxaropena oraino, baina... itxaropen kaxkarra. Batzordekoek ikusirik gu han egotea arriskugarria zitzaiela eta kalera bota ezinean, edo mesede bat guri egitearren, batzarraren hasiera hasieratik hitz egiteko eta parte hartzeko eskubidea ukatu egin zeukuten.

Batzarrean bi gai erabili ziren bereziki. Lehenbizikoa Batzordeko pertsona berriak hautatzea zen. Guraso guztiek parte hartu zuten gorabehera honetan eta oso "demokratikoki" gertatu zen dena.

Bigarren gaia Pedagogia arazoaren berri ematea zen. Ordura ko "demokraziatasun" guztia ahitua zuten nunbait eta nolabait beuren erabakia azaltzeko hauxe esan zuten: Datorren ikastaroaren antolaketari buruz esan behar dautzuegu Pedagogia taldea alde ba

tera uzten dugula.....

Hau da, andereñoetatik iñor ez genuela bertan jarraitzerik. Guraso bat gogor eta etengabean ari izan zen arrazoiak eskatzen eta Batzordekoengandik azalpen bat lortu nahirik, baina Batzordekoek nolabait hainbeste galdera nazkagarri isilaraztearren eta kezka-tien kontzientziak lasaitzearren honela erantzun zuten: Arrazoiak jakin nahi badituzue, hementxe egoten gara astearteetan zazpi t'erdietatik aurrera; etorri geugana eta bakarka emango zaizkitzue arrazoiak".

Beraz argi gelditu zen Batzordearen jokabidea: lehenbizi andereñoak bota, ondoren, arrazoirik eman gabe gurasoei onartu erazi beren erabakia, eta azkenez, iñork jakin nahi bazukean botatzearen arrazoiak, astearteetan prest egongo zirela azalpenak emateko. Honez ganera, esan beharrean gaude, Batzordearen barruan jende berria sartu zela eta pertsona honengan leporaturik gelditu zen, hain zuzen, berek sortu eta konpondu gabeko istillua.

Konturaturik andereñoek hango batzarrean ezer konpontzerik ez zegoela, eta Batzordekoen jokabide maltzur eta agintekeriezkoa gurasoen aurrean salatu eziñik, batzarretik alde egin genuen.

Dena dela argi gelditu behar zen guri egiñiko injustizia eta posibilitate guztiak ahituak zeudenez gero, ezinbesteko erabakia hartu genuen: Lege aldera jotzea. Bagenekien arriskugarria, gogorra eta nazkagarria zela horretara heldu beharra, baina prest egon ginen legeari buruzko tramitazio guztia etentzeko neurrizgaineko kalterik sortzen bazitzaion bai Portugaleteko edo bai edonungo Ikastolari."

Ikastaro berria hasteko zegoela, Batzordekoak hestu eta larri ibilli ziren andereñoak aurkitzeko; hestutasun horrek eragirik eta iñor topatuko ez zuten beldurrez "eskaintza" guztiz miragarria egin zekuten: Aurten 170 ume izanen ziren gutti gora behe

ra, bazeuden bi andereño berri, beraz, Ikastolako planifikazio berriari jarraituaz hiru andereño gehiago behar zituzten. Norengaba jo andereñoak aurkitzeko? soluziorik egokiena asmatu zuten eta hona hemen, "eskaini" zeukutena :geure artetik hiru andereño aukeratu lka Ikastolara joateko. Jakina, Ikastolara nortzuk joango ziren aukeratzeari andereñoon esku laga zuten.

Zer dela-eta andereñoon kontra euki dituzten arrazoiak eta planteamenduak goizetik gauera goitik behera bota? Andereñoen premia latz bategatik? Nola uler daiteke "azkenengo" erregalu" hori?

Amesetan gabiltzala uste dugu heziketari buruz helburu jatorrak aurkitu nahirik, eguneroko errealitateak dakarzkigun arazoak gizatasunez konpontzeko gai ez garen bitartean.

777777

7777777

Portugaleteko Ikastolan gertatu denaren azalpena eman dautzuegu. Informazio hau ahal izan dugun objetibitate guztiaz egiten saiatu gara; hala ere, badakizue gu arazoaren barruan sarturik egon garela eta problema hau bizi bizirik izan dugu azkenengo hilabeteetan, beraz, subjektibitate piska bat ere litekeena da.

1) Irakasle bilkurak.-

Zer susmo klase sortzen ari den, gero, bazterretan irakasleei buruz, edo zer jokamolde irakasleen kontra! Arazoari inolako orokortasunik eman nahi gabe ere, aski hedaturik dugu gaitza: Iruine-ako ikastolan bilkurarik ez dutela egiten ahal, ikastolan sartzeko ere giltzarik gabe gelditu direla gauetik goizera Deuston, eta Rarra satekoak, berriz, jo ditu edo hautsi orain arteko markak.

Zer? Irakasleon arinkeria, zabarkeria, azpikeria eta geure keriak baizik ez ote guzti honen ardatz?

2) Aldizkariaren talde arduraduna.-

Aldizkariaren izenik merezi ere ote duen galde lezake norbaitek gure hilabete oroko paper-zirriborratu multzo honek. Eta egia, nonahitik datorrelarik ere eta berari zor zaion errespetuaren gatik, behar omen onartzen jakin. Bai, bai. . . baina alde ederra zegok egia-aren oparia nork egiten duen ere!!

Horiek oro, osatu da halere, talde bat eginkizun honen zama bere gain hartzen duelarik: idazketa, diruzaintza, banaketa eta harpidedunak. Ikuskizun dago oraino zer gisatako planteamendua egingo duen talde honek, baina legearen edo legepetzearen arazoa presentatuko zaio berehala, non-eta irakasle arteko boletin sastar bat bezala, eta multikopiaz argitara emanik bera, orain arte bezalaxe "ez hil eta ez bizi" jarraitzen ez duen.

3) Euskal-irakasle tituloa.-

Ez da lehendabiziko aldia hemen aipatzen dugula. Alegia, Euskaltzaindiaren ardurapean Euskararen Irakasle izateko tituloa eta hori erdiesteko zer plan egin zen eta nola burutuko ziren ikasketak hala etsaminak. Ikus aldizkariaren apirileko zenbakia.

Etsaminak, johan den Urriaren 7 an eta 14 an izan ziren, Bilbon Euskaltzaindiaren etxean eta Donostian EUTG-en. Ehundik go-

ra irakaslegai presentatu direla esan daukute, baina dagigunez ikas-
toletako irakasle gutti. Zergatik ote? Euskararen eremuan sobera
ongi trebaturik gaudelako? Agian bai. Dena den, Eguberietan i-
zan bide dira etsaminak berriro.

Nonahi egin daitezke ikastaroak, baina tituloaren agiria har-
tzeko etsaminak eta epai-mahaina Euskaltzaindiaren baita dago.

4) Mintzaira fitxak.-

Ikastolako laugarren mailako hizkuntza-fitxen liburuak "Ak-
zesit berezia" delako saria irabazi du Durangoko Liburu-Azokan.
Gure goresmenak X.Mendiguren egileari, Debako Arte-Eskolari
eta hori argitara dadin ahalegindu direnei.

BERRIKETARI

72 - XI - 8an



